

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Musumerke eta Musuhandi



ura herri aldrebesa, hura. Hankaz gora bizi ziren denak: lau esan gaur eta bihar batere ez. Gau-txanoa oinetan, eta galtzerdia kaskoan oheratzen ziren.

Gizakia ez eze, zeru-lurrak ere nahikoa nahasirik zeuden. Herri hartan, gerezia ezkutatzen zuen intxaur-oskolak. Eta, arratsaldeko hego-haize epelaren ufadak etxeratzen zituen hango denak; ez nolanahi halere: kortara eramaten zituen gizonak, ganbarara andreak, zerriak gelara eta oiloak sukaldera.

“Hura herri okerra, hura”, gogoratu zitzaion aitona zaharrrari.

ERREPUBLIKAZALEAK, MONARKIKO. Goia behea zen, eta behea goia. Ataria, ganbara. Mandioa, soto... Herri bitxi hartan, gobernu sozialista-edo zuten: gorria, langileen alderdikoa, *Herri Xebe* eta *Langilearentzako Alderdi Sozialista Bateratu* eta *Baterakoiakoa*.

Lehendakari jaun txit agurgarria zen hango apartekotasun denen maisu nagusia. Bitxi denen artean, hura bitxien. Eta, inorekin harreman onik bazuen hango presidente sozialistak, On Kapon Bonbon eta Horkonpon errege tradizionalistarekin zeukan... Neska birjina nahi bazuen erregeak afalosterako, presidenteak ekarriko zion zelofanezko lore-sorta batean bilduta. Mutila nahi bazuen, berdin. Zeren bestetan ez bezala, horretan, oso aurreratuak baitziren sozialista haiek.

Baina, herri bitxi hartan ere, zakurrak ortozik eta katuak oinutsik.

Herriak eskatu zuenean kanpandoretako ezkilak gauean isilik eta mutu geratzea, Bonbon eta Horkonponeko erregeak ez zuen horretarako agindurik izenpetu: “Ez zelako lasai lokartuko erreto-rea”. Sindikatuek gura izan zutenean langi-



INIGO AZKONA

leen zergak murriztea, errege ipurterreak ez zuen dekreturik idatzi: “Ez liratekeelako lasai lotara abiatuko banketxeetako nagusiak”. Gobernuak legea egin zuenean Hirugarren Munduari laguntza emateko, errege zimelak ez zuen legea onetsi: “Hirugarren Mundu horrek, behingoagatik, bere indarrez baliatzen ikasi behar zuelako”.



Ondo baino hobeto joan zitzaien

monarkiaren eta sozialismoaren

zaleei ezkontza politiko eta

ideologiko hura, urtetan. Denak

ateratzen ziren garaile, elkarr

lagunduta *benetako* arazoetan.

Herria zebilen iparra galduta.

Hori bai



irudia:

Antton Olariaga

PRAKA BELTZETAN... Eta gisa hartan, halere, ondo baino hobeto joan zitzaien monarkiaren eta sozialismoaren zaleei ezkontza politiko eta ideologiko hura, urtetan. Denak ateratzen ziren garaile, elkarr lagunduta *benetako* arazoetan. Herria zebilen iparra galduta. Hori bai. Baina horrek ez zeukan berebiziko garrantziarik, ziotenez.

Uda lehor batean, krisia etorri eta gauzak zeharo okertu ziren. Herriarren protesta-burrunba ez zen asko atzeratu... greba orokorrera deitu zuten sozialistek.

Haietako batzuek bakarrik. Sindikatuek. Zeren gobernuak segitu baitzuen esaten ezen Errepublika Monarkiko hartan ez zegoela zertan protesta egin... horrek betiko are-rioari baizik ez ziokeela mesede egingo, eta ez herriari. Baina egin zen, ba, egin greba.

Ez zen asko aldatu Errepublika Monarkikoaren aldartea: segitu zuen erregeak bere xelebrekerietan, segitu presidenteak bereetan; eta herriak, ipar-orratza aurkitu ezinik.

Aitona zaharrak ilobari kontatu zionez, modan jarri zuen errege hark presidentearen laguntzarekin praka beltzetan adabakiak hari zuriarekin josteko ergelkeria.

“Hura burugabekeria, hura”, zioen aitona. Eta jarraitu zuen marmarrean: “Baina, sozialista edo zozolistoia izan, gobernu beti musu-merke, eta errege hura beti musu-haundi!”. ■